

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 5,5 milioi erabiliko ditu ikasturte honetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko 81 ikastetxe finantzatzeko

Besterenduta dauden eta diru-laguntzak jasotzen dituzten zentroetarako beste 2,3 milioi euro onartuko ditu; hortaz 7,8 milioi emango ditu orotara

Miércoles, 11 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran. Haren arabera, 5,5 milioi euro erabiliko ditu 2014-2015 ikasturte honetan Haur Hezkuntzako (0-3 urte) lehen zikloko 81 ikastetxe finantzatzeko.

Ikasturte honetan Nafarroako toki-erakundeen mende dauden 0 eta 3 urte arteko 93 zentroak finantzatzeko onartu den lehen gastua da honakoa. Kopuru honi gehitu behar zaizkio lau zentrok besterendutako unitateak finantzatzeko emango diren 1.373.471 euroak eta diru-laguntzak jasotzen dituzten bederatzi zentrori emango zaizkien 942.209 euroak. Orotara, 7,8 milioi euro erabiliko ditu Gobernuak ikasturte honetan ikastetxe hauek finantzatzeko.

Laguntzak Hezkuntza Departamentuak toki-erakunde bakoitzarekin egindako hitzarmenak sinatuz gauzatuko dira.

Hala, familien eta titularrak diren 71 toki-erakundeen ekarpena osatuko du.

Jarraian, ikastetxeetako toki-erakunde titularrak zehazten dira, alfabetikoki, haien izen eta unitateak, eta Nafarroako Gobernuak egindako ekarpena:

Ablitas ("Mi Cole", 3 unitate): 75.714 euro; **Allo** ("Juan Pablo II", 2 unitate): 46.636 euro; **Altsasu** ("Txirinbulo", 3 unitate): 41.224 euro; **Andosilla** (Haur Hezkuntzako Zentroa, 3 unitate): 61.684 euro; **Antsoain** ("San Cristóbal", 7 unitate): 94.667 euro; **Agoitz** (Agoizko Haur Hezkuntza, 4 unitate): 64.133 euros; **Aranguren** ("Kuluxka" eta "Ttipi Ttapa" ikastetxeak, 14 unitate): 132.489 euro; **Arbizu/Lakuntza** ("Kuttuka", 5 unitate): 54.855 euro; **Arguedas** (Arguedas Haur Hezkuntza, 2 unitate): 64.675 euro; **Artaxoa** (Artaxoa HH, 2 unitate): 37.811 euro; eta **Azagra** (Azagra HH, 4 unitate): 71.940 euro.

Sartuta daude ere: **Barañáin** (Barañáin I –euskara- eta Barañáin II –gaztelania-, 5 unitate): 78.000 euro; **Baztan** (Baztango Haur Eskola, 6 unitate): 99.770 euro; **Bera** (Mukixu, 4 unitate): 53.454 euro; **Berriobeiti** (Artica HH eta Berriobeiti HH, 8 unitate): 77.782 euro; **Berriozar** (Urtxintxa, 9 unitate): 124.733 euro; **Betelu** (Sorgintxo Haur Eskola, 1 unitate): 39.689 euro; **Buñuel** (Buñuel HH, 2 unitate): 55.932 euro eta **Burlata** (Burlata HH, 9 unitate): 139.877 euro).

Barnean daude ere: **Cabanillas** (Montessori, 2 unitate): 45.506

euro; **Cadreita** (Colorines, 2 unitate): 46.843 euro; **Caparroso** (Bigarren Belaunaldia, 4 unitate): 83.134 euro; **Zarrakaztelu** (Chiquis, 2 unitate): 42.454 euro; **Cascante** (Colorettes, 5 unitate): 96.048 euro; **Castejón** (Garabatos, 4 unitate): 55.105 euro; **Zizur Zendea** (Zizur Zendeako mankomunitatea HH, 6 unitate): 82.205 euro; **Oltza Zendea** (Oltza Zendea, 3 unitate): 41.024 euro; **Cintruenigo** (Capuchilandia, 11 unitate): 115.764 euro eta **Cortes** (La Ribera, 3 unitate): 59.076 euro.

Laguntzak jasoko dituzte ere: **Lizarra** (Arieta, 5 unitate): 68.517 euro; **Esteribar** (Esteribar HH, 5 unitate): 79.482 euro; **Fontellas** (Chiquitines, 2 unitate): 45.560 euro; **Funes** (Joaquina Martínez Teillet, 4 unitate): 75.756 euro; **Fustiñana** (Pulgarcitos, 3 unitate): 72.137 euro; **Garinoain** (Amatxi, 1 unitate): 59.673 euro; **Huarte** (Haurtxoa Pérez Goyena eta Haurtxoa Ugarrandia, 10 unitate): 168.664 euro; **Iza** (Izako Sarburu HH, 3 unitate): 66.093 euro; **Erronkaribarreko Batzorde Orokorra** (Erronkaribat HH, 1 unitate): 42.182 euro; **Larraga** (Gatopardo, 1 unitate): 27.691 euro; **Leitza** (Leitza HH, 4 unitate): 52.722 euro; **Lekunberri** (Lekunberriko Haur Eskola, 4 unitate): 58.181 euro; **Lerín** (Amado Alonso, 1 unitate): 37.878 euro; **Lodosa** (Arco Iris, 1 unitate): 30.467 euro; **Los Arcos** (Santa María, 1 unitate): 29.218 euro; eta **Irunberri** (Irunberri HH, 2 unitate): 48.957 euro.

Bestalde, honako hauek ere jasoko dituzte laguntzak: **Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak** (Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, 2 unitate): 52.349 euro; **Salazar eta Nabaskozeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak** (Landagutia, 1 unitate): 40.910 euro; **Martzilla** (Bilindanga, 3 unitate): 60.115 euro; **Mendabia** (Mendabia HH, 3 unitate): 53.267 euro; **Mendigorría** (Andión, 2 unitate): 51.280 euro; **Milagro** (Infanta Leonor, 3 unitate): 79.674 euro; **Murchante** (Murchante HH, 4 unitate): 69.571 euro; **Noain** (Elortzibar HH, 6 unitate): 118.258 euro; **Orkoien** (Ostadar, 6 unitate): 112.431 euro; eta **Oteitza** (San Salvador, 2 unitate): 45.481 euro.

Laguntzak jasoko dituzte ere: **Iruña** (Hello Azpilagaña, Hello Bustintxuri, José María Huarte eta Printzearen, 34 unitate): 421.275 euro; **Azkoien** (Azkoien HH, 5 unitate): 62.556 euro; **Gares** (Txori, 6 unitate): 119.433 euro; **Ribaforada** (San Francisco Javier, 3 unitate): 64.729 euro; **Zangoza** (Curriños, 4 unitate): 56.026 euro; **Doneztebe** (Askin, 3 unitate): 62.251 euro; **Sartaguda** (Arco Iris, 2 unitate): 56.006 euro; **Tafalla** (Tafalla HH, 9 unitate): 98.692 euro; eta **Tutera** (María Reina eta Lourdes, 14 unitate): 252.048 euro.

Azkenik, honako hauek jasoko dituzte laguntzak: **Uharte Arakil** (Pausoka, 1 unitate): 31.712 euro; **Ultzama** (Xinbili Xanbala, 3 unitate): 48.677; **Eguesibar** (Eguesibar HH I, II eta III, 18 unitate): 235.844 euro; **Valtierra** (Virgen de la Nieva, 3 unitate): 53.532 euro; **Viana** (Jaime García Orio, 3 unitate): 54.301 euro; **Alesbes** (Pasitos, 3 unitate): 84.459 euro; eta **Zizur Nagusia** (Zizur Nagusia HH, 6 unitate): 107.017 euro.